



Esp. kodea: 2013ZTXU0006
Titularra: OZMA

Gaia: SANTAMASETAN KALEKO SALMENTA
EGITEKO BAIMEN ESKAERA
Hasiera data: 2013/09/05

“EDOZEINEK ERABILTZEKO JARDUERA BEREZI”KO LIZENTZIAK EMATEKO PROZEDURA AGINDUKO DUEN BALDINTZA JURIDIKO-EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN AGIRIA; LIZENTZIA HORIEK GAITZEN DUTE BIDE PUBLIKOAN (GARIBAI-KONTZEZINO ALDEAN) JARTZEA KALEKO SALTOKIAK SANTAMASETAN.

1.- Lehiaketaren helburua:

Arrasateko Udalak administrazio prozedura deitu du “edozeinek erabiltzeko jarduera berezi”ko lizentziak emateko; lizentzia horiek gaitzen dute bide publikoan (Garibai-Kontzezino aldean) jartzea kaleko saltokiak santamasetan, honekin batera doan planoan jasotzen den kokalekuaren arabera.

Salmenta jarduera egin daiteke 2013/12/22an (egun osoan), betiere indarrean dagoen aplikatu beharreko araudiak edo udal agintariek ezarri ditzaketen ordutegiak mugatuta.

Postuen montaia 2013-12-21ean arratsaldeko 18:00etatik aurrera egin beharko da.

2.- Lizentzien ezaugarriak:

(3 m x 1 m) 3 metro linealeko espazioak erabiltzeko lizentziak emango ditugu. Gehienez ere pertsona bati emango diogu lizentzia, elkarren segidako 3 m-ko 3 espazio erabiltzeko, eta 150 izango dira Udalak emango dituen 3 m-ko espazioak.

3.- Lehiatzaileak:

Parte hartu ahal izango dute lehiaketan, jarduteko gaitasun osoa duten eta indarrean dagoen legerian aurreikusitako bateraezintasun edo ezintasun kasuetako batean agertzen ez diren pertsona natural edo juridikoak

Prozeduran ezingo dute parte hartu kalez-kaleko jarduerari lotuta Arrasateko Udalarekin sorrarik dituzten pertsona natural edo juridikoak.

4.- Lizentzien epea.

Lizentziak erabiltzeko epea 2013/12/22an izango da (egun osoan).

5.- Lizentziak emateko prozedura:

Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamenduko 77. artikuluan xedatutakoaren arabera, 1372/1986 Errege Dekretua, jabetza publikoko ondasunen “edozeinek erabiltzeko jarduera berezia”ri dagokionez, lizentziak emango dira zozketa eginez.

Kontuan hartuko dira bakarrak 2013-10-1 eta 2013-11-9 artean (biak barne) aurkeztu diren eskabideak.

Udalak, aurkeztutako agirien arabera eta kontuan izanik zertarako den salmenta, automatikoki erabaki dezake ez sartzea zozketan, haren iritziz, behar den dokumentazioa betetzen ez duten eskabideak.



Esp. kodea: 2013ZTXU0006
Titularra: OZMA

Gaia: SANTAMASETAN KALEKO SALMENTA
EGITEKO BAIMEN ESKAERA
Hasiera data: 2013/09/05

Udal idazkariaren aurrean zozketa egingo da eskabideak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako batzordean, baina egintza ez da izango JENDE AURREKOA.

Zozketa egin eta hortik aterako dira lizentzietako titularrak. Izenak, atera ahala lizentziak emango dira. Hortaz, ateratzen den lehenak 1 zk.a duen lizentzia izango du, eta agiri honi lotuta doan planoan 1 zenbakiarekin izendaturiko tokia izango du.

Zozketaren emaitza argitaratuko dugu iragarki taulan eta Udalaren web orrian.

Behin-behineko titularren argitarapena egin ondoren, hauek 10 eguneko epean hurrengo dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

- a) Kalea erabiltzeagatik ordainduriko tasaren ziurtagiria.
- b) NAren fotokopia.
- c) Gizarte Segurantzako alta.
- d) Alta egitea Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan.
- e) Elikagaiak saltzeko, elikagaien manipulatuzaileen agiria.
- f) Salgaiaren arabera legez eskatu daitezkeen agiriak.
- g) Jarduera horretan lanean dabiltzan pertsonak izanez gero, horien agiriak ekarri beharko dituzte, eta lan harremana demostratuko dute.
- h) Atzeritarrei dagokienez, dagozkien egoitza- eta lan-baimenak lortu izana egiaztatzen duten agiriak, edota egoitza izateko eta lan egiteko gaitasuna ematen dien beste edozein agiri.

Aipaturiko epean dokumentazioa ez bada aurkezten behin-behineko titularrak prozeduratik kanpo geratuko dira, eta behin-behineko titular berriak zozketan hurrengoak geraturikoak izango dira. Hauek 5 eguneko epe batean aipaturiko dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

Azkenean behin-betiko titularren zerrenda argitaratuko da.

Prozedura honetan eman ezean lizentzia kopuru handiena, horiek zuzenean eman ahal izango dira, agiri honetan jasotzen diren baldintzetan.

6.- Eskabideak aurkeztea:

Eskabideak egiteko dokumentazioa BAZen eta Udal Web orrian izango da.

Prozedura honetan parte hartzeko, ezinbesteko baldintza da aurkeztea 2013-10-01 eta 2013-11-09 artean (biak barne), BAZen edo legez balio duen beste edozein eratan, eskabide bat (I. eranskina). Aipaturiko fetxak igaro ondoren, posible izango da eskabideak aurkeztea, eta hauek zerrendetan sartuko dira hasierako zozketarako aurkezturiko eskabideen ondoren.

Aurkeztu den dokumentazioan akats materialik ikusiz gero Mahaiak, hala iritziz gero, hiru astegun baino luzeago ez den epea eman ahal izango du, akatsa zuzendu dezan lizitatzaileak.



Esp. kodea: 2013ZTXU0006
Titularra: OZMA

Gaia: SANTAMASETAN KALEKO SALMENTA
EGITEKO BAIMEN ESKAERA
Hasiera data: 2013/09/05

7.- Prezioak:

Lizentzien titularrek ordaindu behar dizkiote Arrasateko Udalari Udaleko Ordenantza Fiskaletan jasotako prezioak.

- a) Santamas egunerako 15 €/m².

8.- Lizentzien titularren betebeharrak.

- a) Indarrean dagoen aplikatu beharreko araudiak ezarritako orduak errespetatzea.
- b) Udalak egun horietarako finkatu dituen tasak ordaintzea.
- c) Erabiltzen den gunearen ingurua garbitzea, jarduera bukatutakoan.
- d) Jarduera betetzea, energia elektrikoa produzitzeko ekipo autonomoak ez erabiltzea, eta erabili behar ditu zaratarik sortzen ez duten sistemak.
- e) Kaleko saltokia kentzea 2013/12/23ko 9:00ak baino lehen.
- f) Jarduera egitea musikarik erabili barik.
- g) Elikagaiak direnean, osasun erregistroa duten produktuak baino ez eskaintzea saltzeko.
- h) Ikusteko moduan edukitzea uneoro lizentzia baimenduna, bai eta tasak ordaindu izanaren frogagiria ere. Agiria BAZ Zerbitzuan jaso behar da (Abenduak 19 eta 20 egun osoz, 8:30/19:00 ordutegian eta 21ean goizez, 9:00/13:00 ordutegian), edo Udaltzaingoan (Abenduak 21ean arratsaldez eta 22an goizez), eta agiri gabe ezingo da saltokia ipini.
- i) Lan harremanen, gizarte segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienezaren gaietan indarrean dauden xedapen guztietan ezarritakoa betetzea, eta Arrasateko Udala erantzukizunetik libre geratuko da, kontratistak baldintzaren bat betetzen ez badu.
- j) Beste batzuei sortutako kalte guztiei erantzun eta kalteak ordaintzea, lizentzia erabiltzearen ondorioz, bai eta obligazioak ez betetzearen ondorioz sortutakoak ere.

10.- Arau-haustek eta santzioak.

Lizentziaren titularrak behin eta berriro hautsiz gero arauak, agiri honi buruz edo udaltzainen jarraibideei buruz, automatikoki galdu dezake lizentzia, eta legez indarrean dauden beste neurri batzuk hartu daitezke haren aurka.

Arrasate 2013ko irailaren 30a

ALKATEA

Inazio Azkarragaurizar Larrea



Esp. kodea: 2013ZTXU0006
Titularra: OZMA

Gaia: SANTAMASETAN KALEKO SALMENTA
EGITEKO BAIMEN ESKAERA
Hasiara data: 2013/09/05

I. ERANSKINA

PROPOSAMEN EREDUAK

a.- Orokorra.

Izena:

Helbidea Herria.....

Telefonoa.....email.....

Nortasun Agiria:

Eginda dago

norbere izenean edo,ren izenean, helbide soziala (non), eta Identifikazio Fiskaleko Kodearen zk., hauxe adierazten dut:

1.- Jakin dakit administrazio prozedura honi buruzko klausula agiriaren berri (bide publikoa erabiltzeko lizentziak ematea) eta oso-osorik onartzen dut.

2.- Nire ardurapean adierazten dut gaitasun juridikoa eta behar beste baliabide ditudala eskatzen den lizentzia erabiltzeko araudiaren arabera, kontzesio horretarako eskatzen diren baldintza espezifikoak betetzen ditudala eta ez nagoela sartuta indarrean dagoen legerian adierazitako debeku kasu batean ere.

3.- Nire ardurapean adierazten dut indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga obligazioak eta gizarte segurantza betetzen ditudala.

4.- Lizentzia bat ematen badidate, erabiliko dut hori, kasu guztietan, onartutako agirietako betebeharrei eta baldintzei lotuta, eta indarrean dagoen araudia errespetatuz.

5.- "Edozeinek erabiltzeko jarduera berezi"ko lizentzia bat eskatzen dut, bide publikoan (Garibai-Kontzezino aldean) jartzeko kaleko saltoki bat santamasetan, **SALTZEKO ETA, HORRETARAKO, ESKATZEN DU 3 M, 6 M EDO 9 M (SARTU ZIRKULU BATEAN ESKATU DITUEN METROAK).**

Tokia, eguna eta sinadura. INTERESDUNA.